

# Hizkuntza eskubideak eta euskara hezkuntza sisteman

(Language rights and Basque Language in the Education System)

Urrutia Libarona, Iñigo

UPV/EHU. Ekonomia Zientzien Fak. Lehendakari Agirre Etorb., 83.  
48015 Bilbo  
i.urrutia@ehu.es

BIBLID [1137-4446 (2008), 16; 171-190]

Jaso: 07.06.05  
Onartu: 07.12.03

---

*Lan honek ikuspegi juridikotik abiarazitako ekarpena izan nahi du, hezkuntza sisteman hizkuntza eskubideak nola konfiguratzen diren azalduz. Hori gauzatzeko bi perspektibetatik abiatu da ikerketa: alde batetik, hezkuntza (oinarrizko) eskubideak zein karga linguistikoa duen azaltzen da, eta beste alde batetik, euskararen estatusak irakaskuntza sistemaren gainean proiektatzen dituen eragin juridikoak azaltzen dira. Hori abiapuntutzat hartuz, Euskal Autonomi Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean zein hizkuntza eskubide diren aztertzen da, ondorio eta proposamen batzuekin bukatuz.*

*Giltza-Hitzak: Hizkuntza politika. Hizkuntza eskubideak. Hizkuntza zuzenbidea. Hezkuntza eskubidea. Jurisprudenzia. Legedia. Nafarroa. Iparraldea.*

*Este trabajo pretende explicar cómo se configuran los derechos lingüísticos en el sistema educativo desde un punto de vista jurídico. Para ello, la investigación enfoca la cuestión desde dos perspectivas: por una parte, se analiza el contenido lingüístico del Derecho Fundamental a la educación y, por otra, se explican los efectos jurídicos que proyecta el estatus del euskera sobre el sistema de enseñanza. Sobre la base de ese doble enfoque, se analiza el régimen lingüístico educativo en la Comunidad Autónoma Vasca, Navarra y el País Vasco-Francés, terminando con alguna conclusión y propuestas.*

*Palabras Clave: Política lingüística. Derechos lingüísticos. Derecho de la lengua. Derecho a la educación. Jurisprudencia. Legislación. Navarra. País Vasco-Francés.*

*Cet ouvrage vise à expliquer la configuration des droits linguistiques dans le système d'enseignement, dans une perspective juridique. Pour ce faire, notre travail de recherche s'est centré sur deux éléments : d'une part, il montre la charge linguistique du droit (fondamental) à l'éducation et, d'autre part, les influences juridiques du statut de l'euskara sur le système d'enseignement. Il offre ainsi une analyse du droit linguistique dans la Communauté Autonome Basque, en Navarre et au Pays Basque français, ainsi que plusieurs conclusions et propositions.*

*Mots Clé: Politique linguistique. Droits linguistiques. Droits à la langue. Droit à l'éducation. Jurisprudence. Législation. Navarre. Pays Basque français.*

## 1. SARRERA: HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Hizkuntza gizabanakoon berezko ahalmena da eta, hala izanik, zuzenbidearen begietan askatasun publiko gisa agertu behar da. Mugatu ezineko askatasun gisa alegia. Neurri horretan hizkuntza eskubidea, orokorrean harturik (inolako hizkuntza jakinari lotu gabe), oinarritzko eskubidea dela esan genezake, nahiz eta agerpen esprusurik izan ez Giza Eskubideak aitortzen dituzten nazioarteko xedapenetan. Hizkuntza izateko (eta baliatzeko) eskubidea gizabanakoon oinarritzko eskubidea da, gizabanakoon nortasuna eta duintasunari loturiko eskubidea alegia.

Baina hizkuntzak badu bestelako aurpegirik. Hizkuntza norbanakoen eskubidea izateaz gainera, hiztun taldearen eskubidea ere bada. Neurri berean eskubide indibiduala eta kolektiboa da<sup>1</sup>. Hizkuntza eskubideek perspektiba kolektiboa badute ere, oinarritzko eskubideak aitortzen dituzten xedapenek perspektiba indibidualaz baliatu dira nagusiki. Nazioarteko Zuzenbideak ez du sakondu hizkuntza eskubideen eduki kolektiboan, ezta hizkuntza eta lurraldearen arteko harremanean ere. Nazioarteko Erakundeen jurisprudentzia erabat mugatua gertatu da hizkuntza eskubideak aitortzeari dagokionez.

Jurisprudentzia horri begira esan genezake hizkuntza eskubideei ez zaiela oraindik eduki autonomorik aitortu<sup>2</sup>. Nazioarteko Epaitegiek Hizkuntza eskubideak aintzat hartu dituztenean, Hitzarmenek aitortutako bestelako Giza Eskubideak baliatzeko tresna gisa baino ez da izan. Nagusiki, hizkuntza eskubideak hizkuntza dela-eta diskriminazio ezaren printzipioari lotuta agertzen zaizkigu, baita adierazpen askatasun indibidualari lotuta ere.

Gutxiengoan eta hizkuntza-elkarte gutxituen babesaz arduratzen diren nazioarteko xedapenek babes estandar apalak agertzen dituzte, bereziki hizkuntza askatasunei lotuta. Hizkuntza eskubideak bermatzeari zuzendu behar zaion prestazio publikoaren konfigurazioa era malguan jaso da nazioarteko estandarretan.

Ondorioz, hizkuntza eskubideak legegileek konfiguratutako eskubide gisa agertuko zaizkigu indarreko ordenamendu juridikoetan. Hizkuntza erabilera –eta ezagutza– eskubideak aitortzen edo ukatzen dituzten xedapenen ondorioz agertuko zaizkigu hizkuntza eskubideak, baita hizkuntzari edo hizkuntzei aitortutako estatus juridikoaren ondorioz ere.

Bada kontutan hartu beharreko hirugarren perspektiba bat, boterea eta hizkuntzaren arteko harremana, hain zuzen ere. Hizkuntza aniztasuna kudeatzeko estatu-nazioaren perspektibak hizkuntza desorekak eragiten ditu ezinbesteko ondorio gisa<sup>3</sup>. Kasurik onenean, lurraldeko hizkuntza propioari ofizialtasun esta-

---

1. Ikus J.G. TURI "Typology of language legislation". In: Skutnabb-Kangas eta Phillipson (eds), *Linguistic human rights*. Mouton de Gruyter, Berlin-NY, 1995, 32.

2. Ikus F. DE VERENES. *Language, minorities and human rights*. Martines Nijhoff, Hage, 1996, 78.

3. Ikus W. KYMLICKA eta A. PATTEN. *Language rights and political theory*. Oxford University Press, Oxford, 2003, 21.

tusa aitortu zaionean, Estatu hizkuntzaren ofizialtasunari kalterik egin gabe aitortu da. Horren ondorioz bi plano bereiz daitezke:

- batetik berdintasun formaleko legegintza politika gertatzen da: legegintza politika horren ondorioz hizkuntzei berdintasun juridiko formala aitortu dakieke.
- baina bestetik, hizkuntzei lotzen zaizkien eragin metajuridikoek (perspektiba ekonomikoa dela, politikoa dela, soziolinguistikoa dela) hizkuntzen arteko desorekak sendotzen dituzte<sup>4</sup>. Elebitasunak, berak, hizkuntza indartsuenaren alde egiten du. Praktikak hizkuntzen arteko berdintasun juridiko formalaren eraginkortasun eza agertzen du.

Esan daiteke estatu-hizkuntzak babesteko ezarri diren tresna juridikoak eraginkorrak direla, eta eraginkortasun hori gainerako hizkuntzen kaltetan gertatzen dela, azken hauek hizkuntza koofizialak badira ere. Beste modu batez esanda, euskara edo katalanera babesteko ditugun tresna eta baliabide juridikoek ez dute gaztelera edo frantsesa defendatzeko dauden baliabideen eraginkortasun bera. Euskara hizkuntza ofizial eta neurri berean hizkuntza gutxitua izanik, juridikoki babesik eraginkorra eskaini beharko litzaioke, baina praktikan euskara edo katalanaren aldeko sustapen politikaren neurria koofizialtasunari lotutako eskubideek ezarriko dituzte.

## 2. IRAKASKUNTZAN HIZKUNTZA ERREGIMENAREN OINARRI JURIDIKOAK

Legegileari dagokio irakaskuntza sistemaren hizkuntza erregimena konfiguratzea. Baina legegilea ez da erabat aske hori gauzatzeko (ez du nahi duen moduan hizkuntza sistema ezartzerik). Ikuspegi juridikotik abiatuta legegilea bi parametro barneratu behar ditu: alde batetik, hezkuntza eskubidearen eduki linguistikoa errespetatu beharko du, eta bestetik, hizkuntzen estatus juridikoak irakaskuntza sistemaren gainean proiektatzen dituen eraginak barneratu beharko ditu<sup>5</sup>. Hezkuntza eta hizkuntza ez normalizatuen arteko harremana, norabide bitakoa da. Gatozen horiek banan-banan aztertzeraz.

### 2.1. Hezkuntza eskubidearen hizkuntza konfigurazioa

Batetik, hezkuntza eskubidearen planoan dugu. Hezkuntza eskubidea oinarriko eskubidea da. Oinarriko eskubideak oso eskubide bereziak dira, babes juridiko sendoena dutenak hain zuzen ere. Izatez oinarriko eskubideak legegilearentzat ere, muga dira. Parlamentuak ez ditu oinarriko eskubideak nahi duen moduan arautzerik. Muga formal eta materialak ditu. Oinarriko eskubideak

---

4. R. LI NINYOLES, *Idioma y poder social*. Tecnos, Madrid, 1972, 34; J.M. SÁNCHEZ CARRIÓN, *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 1991.

5. I. URRUTIA, *Derechos lingüísticos y euskera en el sistema educativo*. Lete, Iruñea, 2004, 339 ur.

arautzen dituzten legeak onar daitezten gehiengo bereziak eskatzen dira eta gainera lege araubideak eskubide horien oinarrizko edukia bermatu beharko du. Lege bidez ez dago oinarrizko eskubideak desitxuratzetik. Hori hala izanik, hizkuntza araubideak bermatu beharko du hezkuntza eskubidearen oinarrizko edukia.

Hezkuntza eskubidearen oinarrizko izaerak badu beste inplikazio garrantzitsurik, hizkuntza erregimena ezartzerakoan. Konstituzio espainiarrak aitortu dituen oinarrizko eskubideak (hezkuntza eskubidea tarteko –27 art) interpretatu behar dira Giza Eskubideak aitortzen dituzten Hitzarmenen arabera, eta bereziki Nazioarteko Auzitegietao jurispudentziaren arabera (10.2 CE).

Egia esan, gutxi dira hezkuntza eta hizkuntza arloak lotuz Strasburgeko Giza Eskubideen Auzitegiak emandako Epaiak. Orain arte bi baino ez dira izan. Lehena, aspaldikoa (1968), Belgikako hizkuntza erregimenari buruzkoa<sup>6</sup>. Kasu horretan demandatzaileek, beste gauza batzuen artean, zera argudiatzen zuten: Europar Konbenioak aintzat hartzen zuela hizkuntza aukeratzeko eskubidea irakaskuntzan (banaketa sistema, alegia). Auzitegiak ez zuen planteamenduarekin bat etorri eta zera esan zuen:

El Convenio no impone obligaciones determinadas. En particular, la primera frase del artículo 2 no especifica la lengua en la que la enseñanza debe impartirse para que el derecho a la instrucción sea respetado<sup>7</sup>.

Eta modu zehatzagoan:

Esta disposición no impone a los Estados el respeto de las preferencias lingüísticas de los padres en el campo de la educación o de la enseñanza, sino únicamente el de sus convicciones religiosas y filosóficas. Interpretar los términos “religiosas” o “filosóficas” de modo que comprendan las preferencias lingüísticas equivaldría a desvirtuar su sentido ordinario y habitual, y hacer decir al Convenio lo que no dice<sup>8</sup>.

Ondorioz, Auzitegiak modu murriztean interpretatu zuen hezkuntza eskubidearen edukia<sup>9</sup>. Hezkuntza eskubideak ez du barne hartzen hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

---

6. Strasbourgeko Giza Eskubideen Epaitegi Europarreko Epaiak, 1963ko uztailaren 23koa, Belgikako hizkuntza erregimenaren zenbait arloei buruzkoa. Kasu hau planteatu zen, hain zuzen ere, Flandrian bizi ziren guraso frankofono batzuk ezin zutelako beren seme-alabak eskola frankofonoetara bidali, belgikar hizkuntza legeak hori debekatzeko baitzuen.

7. Giza Eskubideen Epaitegi Europarreko Epaiak, 1963ko uztailaren 23koa, I B 3 Zuzenbide Oinarria.

8. Giza Eskubideen Epaitegi Europarreko Epaiak, 1963ko uztailaren 23koa, I B 6 Zuzenbide Oinarria.

9. Ikus A. MILIAN, *Derechos lingüísticos y derecho fundamental a la educación: un estudio comparado*. Civitas / Generalitat, Madril, 1994, 37.

Ondorio hau ez da zalantzan jarri berriagoa (2001) den *Chipre v. Turkia* Epaian<sup>10</sup>. Epaiak berriz ere aditzera eman zuen hezkuntza eskubideak ez dakarrela hizkuntza aukeratzeko eskubidea<sup>11</sup>. Edozelan, Turkiaren menpe dagoen irlako iparraldean lehen hezkuntza grekoz bermatu bai, baina bigarren hezkuntza turkoz baino ez bermatzeak arrazoirik gabeko diskriminazioa dakarrela baieztatu zuen. Auzitegiak ez zuen neurritzotzat jo agintari Turkoek agertu zuten konponbidea, hau da muga gainditu eta Irlako hegoaldera joateko aukera ikaskuntza grekoz jarraitzeko. Auzitegiak baieztatu zuen Agintari turkoek azaldutako irtenbidea Estatuei dagokien hezkuntza betebeharrak ez zituela asetzen, familia bizitzan larregizko inpaktua zuelako eta beraz arbitrariotzat jo zuen<sup>12</sup>.

Strasbourgeko Auzitegiak, une honetan, hezkuntza arloari buruzko kasu berri bat du eskuartean, Letonia Estatuaren hezkuntza araubideari buruzkoa hain zuzen ere. Oraindik epairik ez badago ere, oso adi egon beharko dugu, izatez Giza Eskubideen Komiteak zenbait zalantza agertu baitzituen Legearen zilegitasunari buruz. Bereziki, eskola pribatuetan errusiarraren erabilera kurrikularra ekidin eta latviera inposatzearen zilegitasun zalantzarria dela adieraziz<sup>13</sup>.

Nazioarteari begira, bada aipatu beharreko beste puntu bat. Esan dugun moduan Giza eskubideen hizkuntza edukia modu mugakorrean interpretatu dira. Baina euskara eta euskara bezalako hizkuntzen kasuan babes erantsia aurki daiteke gutxiengoan eta hizkuntza gutxituei buruzko nazioarteko araubidean. Aipamen berezia merezi du Hizkuntza Gutxituei buruzko Karta Europarra.

Dakigunez Kartak oso estandar apalak ezartzen ditu modu orokorrean (7 Art.), baina aukerak zabaltzen dizkie Estatuei konpromiso maila handiagoa edo txikiagoa hartzeko. Ratifikazio instrumentua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan ondoren<sup>14</sup> bere ezarpenak zuzenean eta erabat aplikagarriak bihurtu zaizkigu. Kartaren 8 artikulua hezkuntza arloaz arduratu da, eta honakoak dira Espainiako Erresumak bereganatu dituen paragrafoak:

Art. 8. En materia de enseñanza y, por lo que se refiere al territorio en que se hablan dichas lenguas y según sea la situación de cada una de ellas, sin perjuicio de la enseñanza **de la(s) lengua(s) oficial(es) del Estado**, las Partes se comprometen a:

a.- i) prever una **educación preescolar garantizada en** las lenguas regionales o minoritarias correspondientes.

---

10. Strasbourgeko Giza Eskubideen Epaitegi Europarreko Epaiak, 2001eko maiatzaren 10ekoa, *Chipre v. Turkia*.

11. *Ibid* 277 paragr.

12. *Ibid* 278 paragr.

13. Ikus Concluding Observations of the Human Rights Committee: Latvia.06/11/2003. CCPR/CO/79/LVA. (Concluding Observations/Comments), non honakoa jaso baiten: "The State party should take all necessary measures to prevent negative effects on minorities of the transition to Latvian as the language of instruction. It should also ensure that if state subsidies are provided to private schools, they are provided in a non-discriminatory manner" 20. paragr.

14. Estatuko Aldizkari Ofiziala 2001ko irailaren 15ekoa.

- b.- i) prever una **enseñanza primaria garantizada** en las lenguas regionales o minoritarias correspondientes.
- c.- i) prever una **enseñanza secundaria garantizada** en las lenguas regionales o minoritarias correspondientes.
- d.- i) prever una **enseñanza técnica y profesional garantizada** en las lenguas regionales o minoritarias correspondientes.
- e.- iii) si, en razón del papel del Estado con respecto a los centros de enseñanza superior, los apartados i) y ii) no pudieran aplicarse, fomentar y/o autorizar el establecimiento de una enseñanza universitaria u otras formas de enseñanza superior en las lenguas regionales o minoritarias, o de medios que permitan estudiar esas lenguas en la universidad o en otros centros de enseñanza superior.
- f.- i) tomar disposiciones para que **se impartan cursos de enseñanza para adultos o de educación permanente principal o totalmente** en las lenguas regionales o minoritarias.
- g.- Tomar medidas para asegurar la **enseñanza de la historia y la cultura** de las que es expresión la lengua regional o minoritaria.
- h.- garantizar la **formación inicial y permanente del profesorado** necesario para aplicar los párrafos de a) a g) que haya aceptado la Parte.
- i.- crear uno o varios órganos de control encargados del seguimiento de las medidas adoptadas y de los progresos realizados en el establecimiento o desarrollo de la enseñanza de las lenguas regionales o minoritarias, y redactar al respecto informes periódicos que se harán públicos<sup>15</sup>.

Ondorioz, haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, lanbide hezkuntzan eta helduentzako etengabeko irakaskuntzan euskara bidezko irakaskuntza bermatu behar da. Edozein dela gaur egungo ereduaren sistemaren erreformak har dezaken norabidea, “euskarazko irakaskuntza” bermatu behar da (D eredua hain zuzen ere). Nazioarteko Zuzenbideak D ereduari (ikastola ereduari) babesa eta kobertura zuzena ematen dio. Hau ez da A ereduaren kasua, izatez, gaztelera ez baitago kontsideratzerik Europako hizkuntza gutxitua<sup>16</sup>.

## 2.2. Euskararen Estatusa eta Hezkuntza

Txanponaren bestaldeari begiratu behar diogu orain. Aurrez hezkuntza eskubidearen hizkuntza inplikazioez hitz egin badugu ere, orain hizkuntzaren estatusak sortzen dituen hezkuntza eraginei erreparatu behar diegu.

---

15. Enfasiak guk gehitu ditugu.

16. Ikus Europako Hizkuntza Gutxituen Kartaren 1 artikulua, non hizkuntza gutxituaren kontzeptua jaso baiten.

Hizkuntza aniztasuna arautzeko eredu desberdinak daude. Kontaktuan dauden hizkuntzei ofizialtasun estatusa aitortzea eredu horietatik bat da<sup>17</sup>. Euskal Autonomi Erkidegoan euskarari ofizialtasuna aitortu zaio, gaztelerarekin batera,<sup>18</sup> baita Nafarroako “eremu euskaldunetan” ere<sup>19</sup>.

Ofizialtasun bikoitzak zera dakar: bi hizkuntzei estatus juridiko bera aitortzea. Baina hizkuntzen arteko berdintasun juridiko formala ez dator bat hizkuntzen egoera errealarekin. Euskara eta gazteleraren egoera ez da berdina, egoera desorekatua da arrazoi politiko, juridiko, eta historikoetan oinarri duelarik. Ofizialtasun bikoitzak helburu berdintzailea izan behar du ardatz, botere publikoei jarduera sustatzailea burutzeraz bultzatuz. Hori da, hain zuzen ere, normalkuntza prozesua. Ofizialtasun bikoitzaren aitorten juridikoa ez da, beraz, jarduera estati-koa, aitorten hutsarekin agortzen dena. Ofizialtasun bikoitzak normalizazio prozesua abian jartzea eskatzen du<sup>20</sup>. Berdintasun juridikoak dimentsio substantzia- la hartzen du, desorekak gainditzeari zuzendua.

Ofizialtasun bikoitzaren oinarria ez da hizkuntzen arteko (edo hizkuntza komunitateen arteko) elkarbizitza soila<sup>21</sup>. Ofizialtasun bikoitza ez da oinarritzen askatasun hutsetan, betebeharrak publikoak ere sortzen ditu.

1- Norbanakoen ikuspegitik, ofizialtasun bikoitzak ez du babesten hizkuntza ofizialetatik bat bakarra ezagutzeko eskubiderik. Euskara ikastea ez dago norbanakoen esku. Norbanakoez ezin baldintza dezakete hizkuntzen ofizialtasunari lotzen zaion eragin juridiko hori. Hizkuntzen estatus instituzionalak eskatuta, ikasle guztiei bermatu behar zaie bi hizkuntza ofizialen ezagutza.

2- Botere publikoek, irakaskuntza sistemaren bitartez, bi hizkuntza ofizialen ezagutza eraginkorra bermatu behar dute. Ofizialtasuna eta hezkuntzaren arteko harreman juridikoak ezaugarri berdina izan behar ditu euskara eta gazteleraren kasuan. Irakaskuntza sistemak helburu berdina bermatu behar izango ditu, beraz, bi kasutan.

Auzitegi Konstituzionalak ofizialtasuna eta irakaskuntza sistemaren arteko harremanaz jardun du behin baino gehiagotan. Bere jurisprudentziaren arabera, Ofizialtasunaren berme instituzionala helburuak bermatzeari zuzentzen zaio. Ofizialtasunak helburuak ezartzen ditu, irakaskuntza sistema bitartekoa izanik.

---

17. Munduan dauden 6 /7.000 hizkuntzen artean, ehunaka gutxi batzuei baino ez zaie ofizialtasuna aitortu. Euskara bera ez da ofiziala bere lurralde osoan. Hori arrazoi dela, esan genezake hizkuntza arloko oinarritzeko eskubideen bermea hizkuntza gutxi batzuei erreserbatzen zaiela (T. SKUTNABB eta R. PHILLIPSON, *Linguistic human rights*. Mouton de Gruyter, Berlin-NY, 1995, 2. or).

18. Ikus Gernikako Estatutua (LO 3/1979, abenduaren 18koa) 6. Art.

19. Ikus LORAFNA 9.2 art.

20. Ikus E. RUIZ VIEYTEZ, “Lenguas y constitución: una visión del derecho lingüístico europeo” RVAP 72, 2005, 261 non hizkuntzen izaera gutxitua eta ofizialtasunaren arteko harreman aztertzen baiten.

21. Sakontzeko ikus I. URRUTIA, *Derechos lingüísticos...* 342 hurr.

Irakaskuntza sistema (edo hizkuntza erduetatik bat aukeratzeko askatasunak) ez du euskararen ofizialtasunaren eraginak mugatzerik. Irakaskuntza sistemak hizkuntza ofizialen ezagutza bermatu behar du.

Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia oso argia da horretan. Auzitegiak dioenari jarraiki:

El Gobierno vasco hace particular hincapié en el hecho de la cooficialidad del castellano y el euskera; en efecto, todos los habitantes de Euskadi tienen derecho a conocer y usar ambas lenguas. Ello supone naturalmente que ambas lenguas han de ser enseñadas en los centros escolares con la intensidad que permita alcanzar ese objetivo. Y es de observar en ese mismo sentido que tal deber no deriva solo del Estatuto sino de la misma Constitución<sup>22</sup>.

Irakaskuntza-sistema tresna edo lanabes gisa hartzen da hizkuntza ofizialtasunaren eraginak bermatzeari begira. Auzitegi Konstituzionalak honakoa adierazi zuen ondoren:

De estos preceptos resulta claro que el estado en su conjunto (incluidas las Comunidades Autónomas) tienen el deber constitucional de asegurar el conocimiento tanto del castellano como de las lenguas propias de aquellas... Una regulación de los horarios mínimos que no permita una enseñanza eficaz de ambas lenguas en esa Comunidad incumpliría el artículo 3 de la Constitución<sup>23</sup>.

Hizkuntza ofizialen ezagutza, helburu bezala hartzen da, ofizialtasun bikoitzari lotutako helburu gisa alegia<sup>24</sup>.

Hamar urte beranduago, Auzitegi Konstituzionalak ideia berri bat gehitu zion eskema orokor horri, zehatz lotuz hizkuntza ofizialaren presentzia behikularra eta ofizialtasunaren hezkuntza eraginak.

A esa finalidad de garantía del suficiente conocimiento y uso correcto de ambas lenguas han de dirigirse las actuaciones de los poderes públicos competentes en materia de educación... que les corresponde determinar el aprendizaje de una y otra lengua... y, en lo que aquí especialmente importa, su empleo como vehículo de comunicación entre profesores y estudiantes, de forma que quede garantizado su efectivo conocimiento...<sup>25</sup>

---

22. Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 87/1983, urriaren 27koa, 5 Zuzenbide Oinarria eta Auzitegi Konstituzionalaren EPAGA 88/1983, data berekoa, 4 Zuzenbide Oinarria.

23. Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 87/1983, 5 Zuzenbide Oinarria eta Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 88/1983, 4. Zuzenbide Oinarria.

24. Sakontzeko I. AGIRREAZKUENAGA, "Reflexiones jurídicas sobre la oficialidad...", p. 683, A. MILIAN i MASSANA, "Los derechos lingüísticos..." cit. p. 361.

25. Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 337/1994, abenduaren 23koa, 9 Zuzenbide Oinarria.



Eta aurrerago,

De manera que las decisiones de los poderes públicos relativas a la enseñanza en una lengua determinada han de considerarse en estrecha conexión con las medidas de política lingüística encaminadas a asegurar el conocimiento de esa lengua<sup>26</sup>.

Jurisprudentzia horrek erakusten diguna zera da:

- Ofizialtasunak ezagutza helburuak ezartzen ditu. Euskara ikasteko eta ikasketaren bitartez euskara ezagutzeko beharra, ofizialtasunaren ondorioa da.
- Irakaskuntzako hizkuntza sistema bitartekoa da, izaera instrumental hutsa du. Sistemak ez du ezagutza helburuak baldintzatzerik, eta baldintzatzen baditu konstituzio-kontrakoa izango da (ofizialtasun bikoitzaren kontrakoa hain zuzen).
- Ofizialtasunari lotzen zaizkion ezagutza-helburuak hizkuntzen erabilera behikularren neurria ezarriko du. Hizkuntza ofizialen ezagutza bermatzeari begira beharrezkoa gerta daiteke hizkuntz erabilera kurrikular zehatza. Euskararen erabilera kurrikularra, euskararen ezagutza bermatzeko heinekoa izan behar da.

### 3. HIZKUNTZA SISTEMAK ETA BERE OINARRIAK

Euskal Autonomi Erkidegoko Estatutuak ez du irakaskuntza arloko hizkuntza erregimena ezarri. Estatutuak legegilearen esku utzi du euskara (eta gaztelera) ezagutzeko bitartekoak arautzeko ardura (6.2 art)<sup>27</sup>. Legegileari dagokio hizkuntza erregimena ezartzea. Kataluniako Estatutu berriak<sup>28</sup>, aldiz, hizkuntza erregimen osoa prekonfiguratu du. Esan daiteke irakaskuntzako hizkuntza erregimenak hierarkia lerrunik (rango-rik) gorena duela Katalunian gaur egun. Hizkuntza-eskubideen iturria Estatutua da. Bere 35. artikulua, hain zuzen ere, izenburu hori du “hezkuntza-arloko hizkuntza-eskubideak” eta honakoa dio:

1. Pertsona orok du irakaskuntza katalanez jasotzeko eskubidea, Estatutu honetan ezarritakoaren arabera. Hezkuntzan, bai unibertsitatean bai unibertsitatetik kanpora, irakasteko eta komunikatzeko ohiko hizkuntzatzat erabili behar da katalana.
2. Unibertsitatez besteko mailetan, ikasleek irakaskuntza katalanez jasotzeko eskubidea dute. Era berean, eskolan hasten direnean dakarten ohiko hizkuntza edozein dela ere, nahitaezko hezkuntza amaitzen dutenerako, katalanez eta gaztelaniaz bai ahoz bai idatziz behar bezain ondo egiteko eskubidea eta eginbeharra dute. Bai katalanaren bai gaztelaniaren irakaskuntzak behar besteko lekua izan behar du ikasketa-planetan.

---

26. Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 337/1994, abenduaren 23koa, 10 Zuzenbide Oinarria (azpimarra, nirea).

27. Gernikako Estatutuko 6.2 artikulua EAEko Erakunde Erkideei galdatzen dizkie bi hizkuntzen erabilpena bermatzea hizkuntzen ofizialtasuna arautuz “eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta baliabideak erabaki eta baliaraziko dituzte”.

28. Lege Organikoa 6/2006, uztailaren 19koa.

3. Ikasleek eskubidea dute bakoitzaren ohiko hizkuntzaren arabera ikastetxeka edo gela-taldea bana ez ditzaten.
4. Kataluniako hezkuntza-sistemara eskolan haseko adina baino beranduago etorri diren ikasleek hizkuntza-indargarri bereziak hartzeko eskubidea dute, baldin eta ondo ulertzen ez dutela-eta nekeza gertatzen bazaie eskolan normaltasunez ibiltzea. (suport lingüístic especial si la manca de comprensió els dificulta seguir amb normalitat l'ensenyament).
5. Unibertsitateko irakasleek eta ikasleek bakoitzak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea dute, bai ahoz bai idatziz.

Kataluniako Estatutuak lehendik indarrean zegoen sistemari heldu dio, konjuntzio sistema edo eredu bakarreko sistemari.

Berez Autonomia Erkidegoei dagokie irakaskuntzako hizkuntza sistema ezarzea. Hizkuntza normalkuntzari buruzko eskumenetan oinarrituz Erkidegoek bi sistema desberdin ezarri dituzte:

- Batetik, *banaketa sistema edo hizkuntza-ereduen sistema* dago. Sistema hau hizkuntza aukeratzeko eskubidean oinarritzen da. Banaketa sistema EAEn aplikatu da orain arte, baita balear irletan eta modu partzial batean, Nafarroan eta Valentzian. Sistemak honek ikasleak ikasgela desberdinetan banatzen ditu, segregatzen ditu, bakoitzaren hizkuntza aukeraketaren arabera.
- Bestetik, *konjuntzio sistema edo eredu bakarraren sistema* dago. Sistema honetan, haur hezkuntzaz gora ikasleak ez dira banatzen, denak ikasgela berdinetan aritzen dira. Kasu honetan hizkuntza biak irakaskuntza-hizkuntza bihurtzen dira. Sistema Katalunian eta Galizian aplikatzen da.

Auzitegi Konstituzionalak baieztatu duenari jarraiki, Konstituzioak ez du eredu elebidun zehatzik inposatzen. Hizkuntza askatasunean oinarritzen den sistema, lege bidez ezar daitezken ereduetatik bat da. Eredu bakarra (Kataluniako konjuntzio sistema), beste aukera bat da.

Hizkuntza arloa askatasun gisa hartzen badugu, banaketa sistemak, teorian, ez du arazo konstituzionalik sortzen. Konjuntzio sistemak, aldiz, hizkuntza askatasunak mugatzen ditu, ikasleek edo gurasoek ez baitute hizkuntza ofizialen artean aukeratzetik. Hori horrela izanik, Auzitegi Konstituzionalak mugapen horren zilegitasuna aztertu zuen, honakoa adieraziz:

Este modelo de conjunción lingüística que inspira la ley de normalización lingüística del Parlamento de Cataluña, es constitucionalmente legítimo en cuanto responde a un propósito de integración y cohesión social en la Comunidad Autónoma<sup>29</sup>.

---

29. Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 337/1994, abenduaren 23koa, 10 Zuzenbide Oinarria.

Integrazioaren printzipioak zilegi bihurtzen du legegilearen aukera hori<sup>30</sup>. Azpimarratu behar da hizkuntza integrazioaren printzipioak babesa ematen diola hizkuntza askatasunaren mugaketari. Hezkuntzaren helburua belaunaldi berriak gizar-tean aritzeko prestakuntza eskaintzea da. Gizartearen hizkuntza ezaugarrietara egokitzeko prestakuntza eskaintzea, alegia. Hizkuntza ez normalizatuen kasuan, hezkuntza sistemak helburu transformatzailea izan behar du, neurri berean hizkuntz desberdintasunen orekatzailea bihurtu behar du. Irakaskuntza sistemak Ikasleei bere lurraldeko hizkuntza propioan aritzeko prestaketa bermatu behar die. Kontak-tuan dauden hizkuntzak ikastea, gizarteratze egokirako baldintza da.

Konjuntzio sistema zilegi izanik, sistema hau eta banaketa sistema, muga konstituzional berdinaren menpe geratzen dira. Zein da muga hori? hizkuntza ofi-zial bien ezagutza bermatzea<sup>31</sup>. Baina helburu horrek ez du esan nahi hizkuntz erabilera orekatua eskatzen denik. Hizkuntza ofizial bien ezagutza, sistemaren emaitza izan behar da, beraz hizkuntzen erabilera kurrikularraren neurria, ezagu-tza bermatzeko heinekoa izan beharko da. Ezagutzaren bermea, eskola-erabile-raren neurria izango da.

Edozelan ikaslearen giza nortasunaren garapenak badu hizkuntza aurpegi-rik ere. Horri lotuz, honakoa baieztatu zuen Auzitegi Konstituzionalak:

al determinar la utilización de la lengua propia como lengua docente, los pode-res públicos deben ponderar aquella finalidad (la garantía del conocimiento) atendiendo tanto al proceso de formación de la personalidad de los estudian-tes... como a la progresividad inherente a la aplicación de dicha medida<sup>32</sup>.

Hezkuntza eskubidearen oinarria bere helburuetan datza. Konstituzioaren 27.2 artikulua araberako "hezkuntzaren objektua giza nortasunaren garapen osoa" da. Jurisprudenziari jarraiki artikulua ez dio ikasleari bermatzen bere ama hizkuntzan hezituta izateko eskubiderik. Ikaslearen giza nortasunaren garapena- ren bermeak muga materialak dakarzki, baina bereziki muga pedagogikoak. Giza nortasunaren garapenak pedagogia teknika egokiak abian jartzea eskatzen ditu. Hori da, hain zuzen ere, Auzitegi Konstituzionalak konjuntzio sistemari ezarri dion muga. Batetik, hizkuntza ofizial bien ezagutza bermatzea eta, bestetik, hezkuntza eskubidearen hizkuntza-edukia bermatzea. Auzitegiaren aburuz, hezkuntza esku-bidearen hizkuntza-edukia, eduki mugatua da. Bere jurisprudenziaren arabera, hezkuntza eskubidea ez da kaltetzen irakaskuntza, hizkuntza ulergarri batez jaso- tzen bada. Beraz, hizkuntza oztopo ez denean eduki dozentek transmititzeko hezkuntza eskubidea ez da kaltetzen. Aldiz, hizkuntza arrazoi dela, transmisiorik

30. Ikus: los comentarios de J. PRIETO "Libertad de lengua y derecho a la educación en la jurisprudencia" VVAA, *Aspectos jurídicos del sistema educativo*. CGPJ, Madrid, 1994, p. 160; y L. PAREJO ALFONSO, "El sistema de conjunción lingüística en la enseñanza no universitaria" en VVAA, *Estudios Jurídicos sobre la Ley de Política Lingüística*. Generalitat de Catalunya / Marcial Pons, Barcelona – Madrid, 1999, p. 281.

31. Ikus L. PAREJO, "El sistema de conjunción lingüística en la enseñanza no universitaria", ZVAA, *Estudios jurídicos sobre la Ley de Política lingüística*. Generalitat / Marcial Pons, Madrid / Barcelona, 1999, 265.

32. Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 337/1994, 11 Zuzenbide Oinarria.

gertatzen ez bada, hezkuntza eskubidea kaltetzen da. Auzitegi Konstituzionalak Antoni MILIAN i MASSANAREN teoria bere egin zuen<sup>33</sup>.

Katalunian erabat baliagarria da teoria hori, baina Euskal Herriko kontextutik begiratuta (bereziki Nafarroatik edo Iparraldetik) zerbait gehiago esan behar dela iruditzen zait. Hezkuntzaren helburua ikasleonek nortasunaren garapena izanik, euskara hizkuntza propiotez duen lurraldeko irakaskuntza sistemak, euskararen ezagutzari bide eman behar dio. Hari horri jarraiki, esan daiteke ikasleonek nortasunaren garapenak perspektiba kolektibo edo sozializatzaileak baduela. Euskal Herriko gizarte kontextuan, ikasleei bermatu behar zaie bertako hizkuntza propioaren ezagutza. Ondorioz, hezkuntza eskubidearen eduki linguistikoa mugatua izan arren, hizkuntza propioaren kontzeptuak hizkuntz-erakundeak bete behar du irakaskuntza prozesua.

#### 4. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN

Euskal Autonomi Erkidegoa bidegurutze batean aurkitzen da une honetan.

Eusko Legebiltzarrek 2005eko abenduaren 2ko osoko bilkuran ez-legezko proposamen bat onartu zuen, Hezkuntza Sailburua bultzatuz hizkuntza eredu berria abian jartzeko<sup>34</sup>. Sailburuak 2007ko udaberrian etorkizuneko ereduaren ardatz nagusiak aurkeztu zituen, baina oraindik ez da lege-proiektua aurkeztu.

Erreformaren bat beharrezkoa zela gutxi jartzen zuten zalantzan. Ikuspegi juridikotik aztertuta esan behar da hizkuntza ereduaren sistemak arazo juridiko larriak sortzen zituela, euskararen ofizialtasunarekin bateragarritasun zaila zuelako. Ereduen sistema (banaketa sistema), ez zen sistemarik egokiena euskararen ofizialtasunari lotzen zaizkion hezkuntza eraginak bermatzeko. Gaur egun hainbat txosten tekniko ditugu eskuartearen, ISEIk landutakoak<sup>35</sup>, Hezkuntza Sailak bultzatutakoak, Euskadiko Eskola Kontseiluak landutakoak<sup>36</sup>, doktorego tesiak, beste-lako ikerketak...<sup>37</sup> Horiek bi gauza erakusten dizkigute:

33. MILIAN i MASSANA, *Derechos lingüísticos y derecho fundamental a la educación*. 1994, 403-411

34. Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, 2005eko abenduaren 16koa. Onartutako azken testua emendakin tranzakzional baten emaitza izan zen, EAJ-PNV, Ezker Abertzalea, Eusko Alkartasuna, Ezker Batua Berdeak eta Aralarrek bultzatua. Ez legezko proposamenaren jatorrizko bertsioa Ezker Abertzaleak aurkeztu zuen.

35. ISEI-IVEI, "Evaluación del nivel B-2 de euskera" Internet bidez eskuragarria <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/B2CAST.pdf> bertan ondorioztatzen da hizkuntza ereduak erabirritzea egokia izan daitekeela araubideak agertzen dituen helburuak bermatzeari begira. Ikus ere 2007ko maiatzaren 24an aurkeztutako azken txostena, "Nivel B1 de euskera en educación primaria" Internet bidez eskuragarria [http://www.isei-ivei.net/cast/pub/B1\\_CASTELLANO.pdf](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/B1_CASTELLANO.pdf).

36. *Ikus EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA, Informe sobre la situación de la enseñanza en la CAPV (2000-2004)*. Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2006, p. 135 non zera irakur daitekeen: "el modelo A se considera inhábil para la adquisición de competencias comunicativas que permitan desarrollar relaciones en euskera".

37. Vid. OLAZIREGI eta J. SIERRA, *EIFE 1. Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, 1986, 25; *EIFE II* 1990 urtekoa, 24...

- Batetik, ereduaren sistemak ez duela ikaslearen euskalduntzea kasu guztietan bermatzen. Derrigorrezko hezkuntza bukatzen duten hainbat ikasleek ez dute euskara maila egokirik agertzen, bereziki A ereduko ikaslearen kasuan (baina ez bakarrik).
- Bestetik, ikaslearen euskara ezagutza mailak ereduarekin lotura estua izanik, beste hainbat faktorek ere eragina dute horretan; adibidez, inguru soziolinguistikoa, familia eta lagunen hizkuntza praktikak, hizkuntzekiko jarrerak, e.a.

Gaia konplexua da, ez behintzat arinkeriatan ibiltzeko modukoa. Irakaskuntza-sistema oinarrizko elementu bilakatu behar da euskal gizartearen euskalduntzea bermatzeko, baina ez da ahaztu behar beste hainbat faktorek ere eragiten dutela horretan. Hari horri jarraiki hausnarketa sakon eta lasaia egin behar da. Akaso irakaskuntza sistemaz aruntzago doan gogoeta. Izatez, hezkuntzako operadoreek orain arte euskararen normalkuntzaren alde egindako ahalegina beste gizarte-sektoreetan egindakoa baino handiagoa izan da. Une honetan hezkuntza arloan dagoen erreflexioa, eta prozesua bera, gainerako gizarte esparruetara trasladatu beharko litzatekeela uste dut, hezkuntza mundua bakar samar ari delako Euskal Herriko gizartearen euskalduntzea eraginkortzearen bidea topa nahian.

Ereduaren sistema aldatzea ezinbestekoa da, baina akaso ez nahikoa. Izatez, banaketa sistema gainditzeaz hitz egiten dugunean, egungo gizarte eredu bera ukitzen duen zerbaitez ari gara. Adibide bat jarriko dizuet. Gaur egun, Unibertsitatean, gero eta aruntzagoa bihurtzen ari zaigu, zenbait lizentziatura lortzeko, enborrezko edo hautazko ikasgai batzuk atzerriko hizkuntzetan jarraitzeko beharra (ingelera bereziki).

Planteatu al da unibertsitateko gaztelarazko lerroetan, euskarazko bizpahiru enborrezko ikasgai gainditzeko beharra ezartzea lizentziatura lortzeko?

Hala ezarriko balitz, Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bitartez euskara ikas-teko eta ezagutzeko premia indarberritua geratuko litzateke. Baina, gaur egun, unibertsitate lizentziatura guztiak gaztelara hutsez eskura daitezke (X eredu). Euskal Herriko Unibertsitateetatik ateratzen diren egresaduak, goi-mailako tituludunak ez dute elebidunak izateko beharrik. Euskal Herrian euskara jakiteko beharrik ez dago goi mailako tituluak lortzeko, ezta lanbideetan aritzeko ere (Administrazioa alde batera utzita).

Derrigorrezko hezkuntzari segida ematen dion unibertsitate hezkuntzan, banaketa sistema aplikatzen da. Banaketa sistema ez da eredu integratzailea ez unibertsitate-aurreko mailetan ezta Unibertsitatean ere. Adibidearekin adierazi nahi izan dizuedana da, banaketa sistema gizarte eredu konplexu eta zabal bate-

---

... eta 46-47; *EIFE III*, 45; *Informe HINE: OHO 8 mailaren azterketa*. Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1991; ikus ere doktorego tesien bilduma in I IDIAZABAL y A. KAIFER, *Eficacia educativa y enseñanza bilingüe en el País Vasco*, IVAP, Vitoria-Gasteiz, 1994, 58; F. ETXEBARRIA, *Educación y Bilingüismo. Problemática general. El caso de Euskadi*. UPV-EHU, Donostia, 1994, 113 or. Non 32 ikerketa ebaluatzen baitiren.

kin lotu behar dela. Banaketa sistemaren gaineko erreflexioa, zabala (zabalagoa) izan beharko luke beraz.

Irakaskuntza sistemari begira, dugun esperientziatik abiatuta, urrats berriak eman behar dira. Etorkizuneko sistemak hizkuntza aldetik bi ezaugarri izan beharko lituzke, batetik euskararen ofizialtasunari egokitutako sistema izatea, eta bestetik, hizkuntza integrazio printzipioari egokitutako sistema<sup>38</sup>. Gerta ezin daitekeena da, hezkuntza sistemaren eraginez bi hizkuntza komunitate identifikatzea, euskalduna eta euskararik ez dakiena, bien artean hizkuntza hezi bat ezarri. Hezkuntza sistemaren izaera integratzailea, nabarmenagoa eta eraginkorragoa bihurtu behar da, eta hori banaketa sistema gainditzearen bidetik lor daiteke.

Hizkuntza sistema berriaren artikulazio juridikoa ez da oraindik gauzatu. Aurreikusitako erreformak izango dituen ñabardurak ezagutu gabe zaila da balorazio juridikoetan sartzea, beraz ez gara saiaturiko. Dirudenez sistemak lau ezaugarri izango ditu:

1- Ikastetxe guztietan Euskara hizkuntza behikular nagusia izango da. Badirudi hizkuntza hautatzeko eskubidea mugatuko dela. Ezaugarri horri lotuta, interesgarria gerta daiteke hizkuntza propioaren kategoria juridikoari lege garapena ematea Katalunian egin dutenaren bidetik<sup>39</sup>.

2- Arauak, berak, modu argiz ezarriko ditu lortu beharreko hizkuntza ezagutza gaitasunak.

3- Ikastetxeei hizkuntza autonomia esparru jakin bat aitortuko zaie helburuak bermatzeari begira bitarteko egokituak ezar dezaten.

Ikastetxeetako hizkuntza proiektuek ikasleen beharrei egokitutako irakaskuntza helburu eta edukiak jaso behar dituzte. Ikastetxeek izango dute euskararen erabilera kurrikularrean eragiterik, legediak agertzen duen euskara ezagutza maila bermatzeari begira. Artikulazio horren babesean, Euskararen ezagutza bermatzea ikastetxeen ardura bilakatuko da. Helburua hezkuntza prozesuaren barnera ekarria izango da, ezagutza bermatzea, eskola betebeharra bilakatuz<sup>40</sup>.

Ikastetxeei hizkuntza autonomia gehitzeak kontrol mekanismoak ezartzea eskatzen du, bereziki euskara gaitasuna egiaztatzearen bidetik. Ikastetxeetako hizkuntza proiektuak, eraginkorrak ez direnerako kontrol mekanismoak ezartzea ezinbestekoa izango da, eta honek ikastetxeen autonomia, bera, mugatu beharko du ezinbestean. Oso kontutan izan behar da Administrazioaren eragiteko ahal-

---

38. Sakontzeko I. URRUTIA, "Lengua y derecho a la educación en la Comunidad Autónoma del País Vasco: reflexiones jurídicas sobre el tránsito hacia un nuevo modelo" *Revista de Lengua i Dret* 46, 2006, 279 eta hur.

39. 2006ko Kataluniako Autonomi Estatutuko 6. Artikuluak edukiez bete du "hizkuntza propioaren" kategoria, honakoa ezarri: "Katalana da kataluniako berezko hizkuntza. Hala bada, bai administrazioetan bai Kataluniako komunikabide publikoetan katalana da erabilera normal eta lehenasunez erabiltzeko hizkuntza, eta irakaskuntzan ere normalean katalana erabili ohi da bai komunikaziorako bai ikasteko" (kursiba nirea da).

40. Hizkuntza autonomiaz sakontzeko ikus I. URRUTIA, "Nola agertzen dira hizkuntza eskubideak hezkuntzan?" in <http://www.behatokia.org/sinposioa/dokumentuak/URRUTIA.pdf>.

menak ez dituela ezaugarri berdinak ikastetxe publiko, kontzertatu eta pribatuen kasuetan.

4- Ikuspegi juridiko-formaletik, lege bidez gauzatuko dela erreforma.

Argi izan behar da banaketa sistema legegileak hauta dezakeen sistemetatik bat baino ez dela. Auzitegi Konstituzionalak baieztatu duenaren arabera:

ni del contenido del derecho constitucional a la educación... ni tampoco, en particular, de sus apartados 2, 5 y 7 se desprende el derecho a recibir la enseñanza en una de las dos lenguas oficiales en la Comunidad Autónoma a elección de los interesados<sup>41</sup>.

Konstituzioak banaketa sistema inposatzen ez duen neurrian, legegilearen esku izango da berau aldatzea. Kontutan izan behar da oinarriko eskubide baten hizkuntza konfigurazioaz gabiltzanez, Legeak berak ezarri beharko ditu sistemaren oinarriak<sup>42</sup>.

Egungo banaketa sistemak lege oinarria du. Euskararen Normalkuntza Legea eta Eskola Publikoari buruzko Legea, indar desberdinez bada ere, banaketa sistemaren oinarri juridikoak ezarri dituzte. Hizkuntza-ereduen artikulazio juridikoa Erregelamenduz ezarri den arren, legeak hizkuntza dozentea aukeratzeko eskubidea aitortu du (15.1 ENL eta 12.1 EPL). Eskubidea legez aitortu den neurrian, Administrazioa behartuta dago euskarazko eta gaztelerazko irakaskuntza eskaintzera. Eskola Publikoari buruzko Legeak hizkuntza-eredu klasikoak mantendu zituen, Jaurilaritzaren aldeko bidalketa jaso bazuen ere hizkuntza-ereduak birdefinitu zituzan (20.1 art). Legeko 10. Xedapen Gehigarriak, A, B eta D ereduak aipatu ditu. Hori hala izanik eredu bakarreko sistema baterantz hurbiltzeko lege bidezko esku-hartzea ezinbestekoa dirudi.

## 5. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK NAFARROAN

Nafarroako hizkuntza erregimen juridikoaren ezaugarri nagusia, legegileari eskaintzen zaizkion ahalmen konfiguratzaile zabalak ditugu. Foru Hobekuntzak legegilearen aldeko bidalketa normatiboa jaso du ofizialtasun bikoitzaren lurralde esparrua ezartzeko, euskararen erabilera ofiziala arautzeko, eta baita euskararen irakaskuntza erregimena ezartzeko ere<sup>43</sup>. Foru legegileari bide eman zaio, ez bakarrik ofizialtasun bikoitza arautzeko, baizik eta ofizialtasun bikoitza, bera, ezartzeko ere. Edozelan, horrek ez du esaterik nahi Foru Legegilea erabat aske denik nahi duen araubidea ezartzeko. Legegileak muga formal eta materialak ditu. Muga formalak, gehiengo kualifikatua eskatzen delako euskarari buruzko Foru Legea onartu eta aldatzeko. Eta muga materialak, euskarari buruzko araubideak hizkuntza aniztasuna sustatzeari buruzko printzipioa bereganatu behar

41. Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 337/1994, de 23 de diciembre, FJ 9.B.

42. Ikus I. URRUTIA, "Lengua y derecho a la educación..." 307 or.

43. Sakontzeko ikus X. ARZOZ, "La convivencia jurídica en Navarra" RVAP 69(II), 2004, 35 hur.

duelako. Printzipio horrek Konstituzioaren babesa izateaz gainera, Europako Hizkuntza Gutxituei buruzko Kartan agerpen zehatza du. Gaur egun, euskararen estatusa Nafarroan, Europako Hizkuntza Gutxituei buruzko Kartaren arabera berrinterpretatu behar da<sup>44</sup>.

Nafarroan, 2007ko maiatzera bitartean behintzat, hizkuntza eskubideen garapen mugakorra gertatu da. Araubidea hizkuntza askatasunak baztertu eta mugatzeari zuzendu zaizkio. Hizkuntza politika ez da hizkuntza-integrazioaren bidetik abiarazi, ezta hizkuntza aniztasuna sustatzearen bidetik ere, euskarari dagokionez behintzat. Hizkuntza Gutxituei buruzko Bulego Europarrak hiru ebazpen argitaratu ditu Nafarroako hizkuntza politika salatuz eta azken urteotako hizkuntza-arauen izaera atzerakoia azpimarratuz<sup>45</sup>.

Hizkuntza politika nafarraren norabidetze horrek ez du oinarri juridikorik ez Konstituzioan, ez Nafarroako hizkuntza Legedian ezta gutxiagorik ere Europako hizkuntza gutxituei buruzko Kartan<sup>46</sup>. Kartak, bere 7.1.c artikuluan, botere publikoei exijitzen die hizkuntza gutxituen aldeko jarduera eraginkorra buru dezatela. Botere publiko nafarrak beharturik daude hizkuntzen elkarbitzita eraginkorra bermatzera. Nafarroako hezkuntza sistemak, hizkuntza integrazioarako baliabide bihurtu behar du.

Nafarroako errealitate soziolinguistikoa anitza da. Kualitatiboki anitza eta baita hizkuntzen lurralde banaketari begira ere. Horrek euskararen normalkuntza prozesuan ezinbestean eragin behar duen faktorea da, baina aniztasunaren aitzakiapean ez dago euskarari zor zaion garapen progresiboa mugatzerik. Nafarroan, hizkuntza zonifikazioa ezarri da. Europako Hizkuntz Gutxituei buruzko Karta indarrean izanik, zonifikazioari irakurketa juridiko berria eman behar zaio. Zonifikazioa Kartaren arabera zilegitasuna aurki dezan, euskararen promozioari eta hizkuntzaren aurrerapen progresiboari bide emango dion tresna bilakatu beharko litzateke, eremu soziolinguistiko bakoitzaren ezaugarriei egokitzuz. Baina, Kartaren indarrez, zonifikazioak zilegitasun osoa galtzen du, euskararen promozioa edo elebitasunaren aldeko demanda soziala blokeatzeko tresna gisa erabiltzen bada<sup>47</sup>. Euskararen aldeko demanda soziala, argi islatzen da etengabe goraka doan hezkuntza eredu elebidunen aldeko demandan. Gizarte eskakizun hori Nafarroako eremu guztietan agertzen da, eta bereziki azpimarragarria da eremu ez euskalduneko ikastetxeetan. Hizkuntza legedia ez zaio gizartearen borondateari egokitzen.

Legeak duen izaera mugakorraren adierazle nabarmena dugu ikastolen egoera, eremu ez-euskaldunean. Eremu ez-euskaldunean 6 ikastola daude. Gizarte ekimeneko ikastetxe horiek Vasuenceren Legeko ezarpenetara egokitzerik ez dute, Legeak aurreikusi ez baitu euskarazko irakaskuntzarik eremu ez-euskaldunean. 2006an Nafar Gobernuak hitzarmen bereziak sinatu ditu gutxienezko kobertura juridikoa ikastola horiei eskaintzeko, baina lege babes sendorik eskaini gabe.

44. Ikus I. URRUTIA, *Derechos lingüísticos y euskera...* 597 eta hur.

45. Ikus EBLUL, 2001eko otsailaren 3ko Ebazpena; EBLUL, Helsinki, 2003ko irailaren 13ko ebazpena; eta EBLUL, 2003ko martxoaren 28ko Ebazpena.

46. Ikus I. AGIRREAZKUENAGA, "Dictamen" RVAP 59, 2001, 120 hur.

47. I. URRUTIA, *Derechos lingüísticos...* 795 or.



Egoera hau ulertezina da perspektiba demokratiko batetik abiatuta, baina ikuspegi juridikotik abiatuta, Nazioarteko Zuzenbidearen kontratokat jo behar da erabat. Irakaskuntza arloko diskriminazioak ekiditeari buruzko Konbentzioko 5.1.c artikulua eta Europako Hizkuntza Gutxituei buruzko Kartako 8.2 artikulua-  
ren arabera, euskarazko irakaskuntza bakarrik baldintza daiteke inguruabar objektiboak tarteko, hala nola, eduki kurrikularrak bateragarriak ez badira programazio orokorarekin, demandatzaileen zenbatekoa, e.a. Baina, irakaskuntza baimenak inolako kasuan baldintza daitezke hizkuntza gutxitu bat erabiltzen delako irakaskuntza bideratzeko. Irakaskuntza arloan, begi-bistakoa da egungo legedi nafarrak egokitzeko premia duela, euskararen normalkuntza prozesuari egokitzeko premia hain zuzen ere, oztopo izateari utziz.

Azken urteotan hezkuntza planteamendu berriak agertzen ari zaizkigu. Planteamendu berriaren muina hizkuntza-eredu berriak ezartzean datza, Batasun Europarreko hizkuntzak Nafarroako irakaskuntza sisteman, hizkuntza behikular bilakatuz<sup>48</sup>. Batasun Europarreko hizkuntzen ezagutza bermatzea, beharrezkoa da. Baina hori gauzatu behar da hizkuntza propioari kalterik egin gabe, eta hizkuntza komunitarioak, hizkuntza propioaren aurrez aurre jarri gabe. Hizkuntza propioak gizar-tearen elementu bereizgarri eta definigarriak dira. Nafarroako Legediak bi hizkuntza propioa aitortu ditu, horietatik bat egoera gutxituan dago. Euskararen irakaskuntza sustatzea Nafarroari dagokio, berau ere Europako hizkuntza ondarearen atala delarik. Euskara eta hizkuntza komunitarioak aurre-aurre eta modu exkluintean jarri gero, gurasoak beharturik izango dira euskararen alde edo hizkuntza komunitarioaren alde egiteko. Hori, berez da kaltegarria hizkuntza gutxituarentzako. Nafarroako hezkuntza sistema izaera integratzailez jardun beharko luke, euskara, gaztelera eta Batasun Europarreko beste hizkuntza bat edo biren ezagutza bermatuz.

## 6. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK IPARRALDEAN

Iparraldeari dagokionez, azken inkesta soziolinguistikoek erakusten digute euskaldunen kopurua progresiboki behera datorrela<sup>49</sup>. Familia bidezko euskararen transmisioa gero eta ahulagoa da, eta ez da nahikoa norabide erregresiboak iraultzeko. Euskararen geroa ez dago bermaturik, galbidean dago. Egoera horren aurrean, euskarari lege estatus berri bat aitortzea ezinbestekoa bihurtzen da. Hizkuntza gutxituan seme-alabak hezitzeko eskubidea legeztatu eta bermatuko duen lege estatus berria premiazkoa da.

Frantzia, Estatu unitarioa da, eta eskema horretara egokitzen dira norbanakoei aitorturiko hizkuntza eskubideak. Hizkuntzei begiratuta, Frantziako lurraldea Europako lurralderik anitzenetarikoa da. Baina zuzenbideak aniztasun horri eman dion erantzuna, erabat mugakorra izan da. Estatu-lurraldean, nazio-hizkuntza bat baino gehiago bada ere, Errepublikak hizkuntza bat bakarra

48. Ikus X. ARZOZ, "Estatuto jurídico del euskara en Navarra" J.M. PÉREZ (coor), *Estudios sobre el estatuto jurídico*. 405 or.

49. Euskararen Jarraipena III-La continuidad del euskera III. Encuesta sociolingüística de Euskal Herria, 2003, 23 hur.

du<sup>50</sup>. Errepublikako nortasunaren eraikuntza, hizkuntza bakartasunean oinarritu da. Frantziako Errepublikaren printzipio politiko nagusietan oinarritzen da elebarkartasuna. Hizkuntza frantsesa nortasun errepublikarraren adierazpena izanik, hizkuntza batasuna Estatu batasunaren izenean ezarri da. Batasuna bultzatu da, eta ez batuketa, prozesu homogenizatzaile baten bitartez<sup>51</sup>. Estatu-nazioak hizkuntzaren eta kulturaren batasuna bilatzen ditu, modu horretan hiritar guztiak berdinak bihurtzeko. Pentsamendu bateratzaile hori Estatua eta gizartea banatzearen ondorioz sortzen da<sup>52</sup>. Izan ere, gizabanakoen berdintasuna baieztatzen da Estatuaren aurrean, baina ez da gizartearen berdintasuna bermatzen, ezetzatu baizik. Batasun nazionalaren izenean gizarte homogeneoa bultzatu da.

Ikuspegi juridikotik abiatuta, Frantziako Estatuak ez du hizkuntza-elkarerik ezta hizkuntz talde gutxiturik aitortzen. Modu kolektiboan balia daitezkeen eskubiderik ez da aintzat hartzen<sup>53</sup>. Kontseilu Konstituzionaleko jurisprudentzia oso mugakorra gertatu da. Jurisprudentzia horren arabera, hizkuntza gutxituetako hizlariei hizkuntza eskubideak aitortzea, Errepublikaren banaezintasunaren aurkakoa da, berdintasun printzipioaren kontrakoa eta herri frantsesaren batasunaren aurkakoa<sup>54</sup>. Errepublikako printzipio politiko nagusiek, hizkuntza eduki eskluyentea dute.

Hizkuntzari buruzko legeria, eskasa eta norabide bakarrekoa da. Errepublikako hizkuntza lehenestea eta sendotzea du helburu. Horrek, berez, eragin kaltegarriak sortzen dizkie gainerako hizkuntzei. Frantziako eskualde-hizkuntzen estatus juridikoa, era negatiboan definitzen da, hau da, legeriak, frantsesaren erabilpena inposatzen ez duen eremuetan edo beste hizkuntzen erabilera toleratzen dituen eremuetan agertzerik izango dute, ez bestela. Eskualde hizkuntzatzat jotzen diren hizkuntzen estatusa, beraz, prekariozkoa da, batere egonkortasunik gabeko marko juridikoan murgiltzen baitira.

Hizkuntza frantsesari buruzko legeriak bi eragin sortzen ditu. Alde batetik, hezkuntza arloan, normaltasun linguistikoa frantsesarentzat gorde da. Lege indarrez, Frantziako hezkuntza sistemaren hizkuntza, frantsesa da. Frantsesari lehenetasuna ematen dion araubideak, egoera diglosikoan aurkitzen diren hizkuntzei buruzko sustapen politikek agertzen dituzten ezaugarri berdinak ditu (katalanera Katalunian edo frantsesa Quebequen)<sup>55</sup>. Frantziako testuinguruan ez dago esa-

---

50. Ikus N. ROULAND, "Les politiques juridiques de la France dans le domaine linguistique" *Revue Française de Droit Constitutionnel* 35, 1998, 526 or; J.M. PONTIER, *Droit de la langue française*, Dalloz, Paris, 1997, 35.

51. I. URRUTIA, "Laicidad y lenguas: la paradoja lingüística del informe Stasi", *Multiculturalidad y laicidad*. Lete, Iruña, 2004, 76.

52. G. KOUBI "La République française FACE aux minorités: silences et réticences". In: N. Levrat (dir), *Minorités et organisation de l'État*. Bruylant, Bruxelles, 1998, 292.

53. Sakontzeko N. ROULAND, J. POUMARÈDE, S. PIERRÉ-CAPS, *Droits des minorités et des peuples autochtones*. PUF, Paris, 1996, 23-27.

54. Décision Conseil Constitutionnel n° 91-290 DC 1991ko maiatzaren 9koa, Loi portant statut de la collectivité territoriale de Corse. Baita ere ikus Decisión n° 99-412 DC 1999ko ekainaren 15ekoa, Hizkuntza Gutxituei buruzko Karta Europarraz..

55. Ikus I. URRUTIA, *Derechos lingüísticos...* 722.

terik frantsesa arriskuan dagoenik, beste hizkuntza batzuk aldiz arriskuan daude. Hori horrela izanik, bada esaterik frantsesaren aldeko babes neurriek proportziorik gordetzen ez dutela berauek aplikatu behar diren testuinguruari begira. Gainera, lege indarrez, hezkuntza sistemaren hizkuntza normala frantsesa izan behar badu, gainerako hizkuntzen garapena, erabat mugaturik geratuko da.

Beste alde batetik, legediak hizkuntza gutxituak ikasteko aukera aipatzen du, baina legediak ez du deus esaten hizkuntza horien erabilera behikularrari buruz, frantsesaren ikaskuntza errazteko ez den kasuetarako. Lege babesik gabe, euskarazko irakaskuntzaren oinarri juridikoak erabat ezegonkorrak bihurtzen dira.

Ezegonkortasun juridiko horren adierazle garbiak ditugu Frantziako Estatu Kontseiluak 2002ko urrian emandako ebazpenak. 2001. urtean Frantziako Hezkuntza Ministerioak irakaskuntza elebidunaren erreforma garrantzitsua abian jarri zuen. Hezkuntza elebidunaren erreforma Erregelamendu forma juridikoa erabiliz gauzatu zen. Lehenbiziko aldiz, Frantziako historia modernoan, arau batek aintzat hartu eta onartu zituen izatez Iparraldean lanean diharduten hizkuntza-eredu desberdinak: murgiltze sistema (Seaskan erabilia), erabilera behikular mistoa eta euskara ikasgai bezala duen eredia (azken bi eredu horiek zenbait ikastetxe publiko eta girstiano pribatuetan eskaintzen dira). 2002ko urrian Estatu Kontseiluak balio gabetu egin zituen murgiltze eredia eta ordutegi parekotasuna duen ereduari buruzko erregelamenduak, horien lege estaldura eza nabarmenduz<sup>56</sup>.

Estatuko Kontseiluak diotenaren arabera, Erregelamenduz abian jarritako erreforma, lege oinarri nahikorik ez du, legeak ez baitu aurreikusi eskualde-hizkuntzen erabilera behikularra frantsesa ikasteko helburuaz gaindi. Lege estaldurarik ezean, Frantziako hezkuntza-sistemaren hizkuntza, frantsesa dela dioen lege ezarpenari, salbuespenik ezin zaizkio erregelamenduz jarri. Hierarkia printzipioa, erregelamenduentzako muga da. Ondorioz, zenbait aldaketa sartu behar izan zitzaizen irakaskuntza elebiduna aintzatesten duten arauetara hizkuntza gutxituen erabilera behikularra ikasgaik mugatuz. Oraindik orain, eskualde hizkuntzak ikasteko eskubidea eta berauek irakaskuntzan erabiltzeko eskubidea batere egonkortasunik gabeko marko juridikoan txertatzen dira.

Iparraldean 2004ko abenduan “Euskararen Erakunde Publikoa” sortu zen (L' Office Public de la langue Basque). Partaide ditu Estatuko ordezkariak (Departamentuko Prefeta, Bordeleko Akademiako Errektorea, eta kulturgaietarako eskualde zuzendaritzako burua), baita Akitaniako Eskualde Kontseiluko ordezkariak, Pirinio Atlantikoko Kontseilu Nagusiko ordezkariak, euskal kulturako Komunitateko Sindikatuko ordezkariak, eta Iparraldeko hautetsien biltzarreko ordezkariak. Bere eginkizunak hizkuntza operadoreak sustatzea, euskarazko irakaskuntza garatzea eta euskararen presentzia bizitza sozialean garatzea dira. Erakundearen eginkizun nagusia euskararentzat hizkuntza politika publiko bat definitu eta praktikara eramatea da, baina bere eraginkortasuna oraindik ere ikusteko dago.

---

56. *Décision Conseil de l'Etat* 2002ko urriaren 28koa, rec. 248192-248204, *Conseil National des groupes académiques de l'Enseignement Public, UNAS et autres*; eta 238653-238655-238681-238710-240435.

2007ko otsailaren 7an Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren artean akordio-markoa sinatu zen, muga-gaindiko eginkizun komunak gauzatzeari begira, 2010 urtera bitartean.

Eskualde hizkuntzen geroa, beren estatusa eta estatutu-hizkuntzarekiko harremana hausnarketarako gai izaten jarraitzen du. Hizkuntzen afera “kulturen” demokratizazioaren bidetik birbideratu behar den afera da, hizkuntza aniztasunaren babesari buruzko dimentsio europarrari bide emanez. Egun Frantziako estatuan gertatzen ari den prozesu deszentralizatailearen magalean, ezinbestekotzat jotzen da hizkuntzei loturiko eskumenak lurralde-kolektibitateen esku jarzea. Hizkuntza arloko eskumenen transferentzia Eskualdearen planoa gainditu beharko luke, ukitua den lurralde kolektibitatearen esku eskumen eraginkorrak jarritz. Perspektiba hori ardatz hartuz, Ipar Euskal Herriko lurralde kolektibitatea sortzearen premia azpimarratu behar dugu, euskararentzako estatus berri bati bide emanez, eta bere indarrez euskara eskolan ikasteko eskubidea eraginkor bihurtuz.

## **ONDORIOA**

Hizkuntza eskubideen eta normalkuntza prozesuaren perspektibetatik abiatuta, Euskal Herriko lurralde guztietan euskararen ofizialtasuna aitortzea oinarrizko helburu gisa planteatzen da. Hizkuntza aniztasunari zor zaion begirunea ardatz hartuz eta berau balioetsiz, hezkuntza sistemak, gero eta anitzagoa den gizarte honetan, hizkuntza integratuz tresna bilakatu behar du, ikasle guztiei euskara ezagutzeko eta erabiltzeko gaitasuna bermatuz. Euskal Herriko hezkuntza sistema hizkuntz transformazioari bide eman, eta neurri berean, hizkuntza integratuz baliabide bihurtu behar du, gizarte aniztasuna bermatuz baina, era berean, hizkuntza aldetik integratuagoa izan behar den etorkizuneko euskal gizarteari bide emanez.